

## **Bilboko Merkataritza Ganberak, Bilboko Koral Elkartek eta Deustuko Unibertsitateak bere 140. urteurrena ospatuko dute Philips Symfonie Orkest-en kontzertu batekin**

*Kontzertua apirilaren 29an izango da, Bilboko Arriaga Antzokian*

**Bilboko Merkataritza Ganberak, Bilboko Koral Elkartek eta Deustuko Unibertsitateak 140 urte** bete dituzte, eta elkarrekin ospatuko dute, Eindhoven-eko **Philips Symfonie Orkest** orkestra sinfoniko ospetsuaren kontzertu bat antolatuz, Koral Elkartek berak lagunduta.

Kontzertua **apirilaren 29an** izango da, 19:30ean, **Bilboko Arriaga Antzokian**, Txemi Etxebarria maisuaren zuzendaritzapean eta Estíbaliz Sánchez sopranoaren parte-hartzearekin.

Bizkaian ekonomia, kultura eta hezkuntzarako funtsezkoak diren hiru erakunde adierazgarri horiek hala ospatu nahi dute bere urteurrena. Lankidetzari balioa ematen diote eta musikari laguntzen diote, gizarte eta kultur kohesioan duen eginkizunagatik, eta kontzertu honetan elkartuko diren tokiko eta nazioarteko talentua aitortzen dute.

### **Philips orkestra sinfonikoa**

Philips Symfonie Orkest, jatorriz Philips enpresako langileek sortua, gaur egun Herbehereetako orkestra sinfoniko ez profesional handi eta ospetsuenetako bat da. Laurogeita hamar kide baino gehiago ditu, eta Eindhoven eta inguruetako zale aurreratuak eta musikari profesionalak dira, musika klasikoarekiko grina handiak elkartuta.

Apirilaren 29rako prestatu duten egitarauan XX. mendeko bi obra handi sartuko dituzte: Francis Poulenc-en Gloria, bere adierazkortasun indartsuagatik ezaguna den pieza korala; eta Dmitri Shostakóvich-en 10. Sinfonia, bere garaiko tentsio politikoen aurrean askatasunari eta erresistentziari buruzko gogoeta musikal sakontzat jotzen den obra.

Ekitaldian, **José Ignacio Zudaire** Merkataritza Ganberako presidentea, **José Miguel Lanzagorta** Koral Elkarteko presidenteordea, eta **Juan José Etxeberria** Deustuko Unibertsitateko errektorea izango dira.

## **Erreferentziazko hiru erakunde**

Bilboko Merkataritza Ganbera, Bilboko Koral Elkartea eta Deustuko Unibertsitatea urte berean sortu ziren, 1886an, eta hasieratik ekonomia, kultura eta hezkuntzarako erreferente bihurtu ziren.

“140 urte igaro dira, eta lanean jarraitzen dugu, batean laburbiltzen diren helburu berberekin: gure Lurraldearen eta gure gizartearen oparotasuna, Bilbo, Bizkaia eta Euskadiren izena mundu osoan zehar eramanez”, diote.

Egunerokoan lehiakortasuna, nazioartekotzea eta talentua hobetzearen alde egiten dute, “hain ibilbide luzea izatea posible egin duten gure sustraiak eta identitatea galdu gabe”.

Bere 140. urteurrenean, herritarrekiko konpromisoa berretsi dute. “Gizartearen behar berrietara egokitzen joan gara - adierazi dute -, erronka eta behar berriei aurre eginez, gaurkoari eta etorkizunari gehiago begiratzuz iraganari baino. Ehun urtetik gorako erakunde biziak gara, elkarlanean sinesten dutenak eta indarrean jarraitzen dutenak. Hori erakusteko modua ere bada kontzertu hau”.